

## 8/2015 UDALEKO OSOKO BILKURA

### 2015EKO IRAILAREN 28AN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### **BERTARATUTAKOAK:**

##### **ALKATEA:**

Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa

##### **ZINEGOTZIAK:**

Miren Josune Eizmendi Manterola  
Aratz Luisa Urkola  
Izaskun Jáuregui Saizar  
Kepa De la Iglesia Sánchez  
Iñaki Merino Castro  
Francisco Berbel Perez

##### **IDAZKARIA:**

Nekane Agirresarobe Etxeberria

Anoeta Hiriko udaletxean, 2015eko irailaren 28an arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa Alkate jaunaren Lehendakaritzapean eta alboan adierazitako zinegotziekin; Bakarne Olano Manzano eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak lana dela eta ezin etorria adierazi dute eta neu, Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea, Idazkari lanetan aritu naiz.

#### **1.- 2015EKO UZTAILAREN 27AN OSPATURIKO AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

2015eko uztailaren 27an ospaturiko bilkuraren akta irakurri eta aho batez onartua izan da.

#### **2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2015EKO UZTAILAREN 16TIK IRAILAREN 14A BITARTE, 349 ZENBAKITIK 423 ZENBAKIRA, HAU BARNE.**

2015eko uztailaren 16tik irailaren 14a bitarte, 349 zenbakitik 423 zenbakira biak barne, bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, Korporakideek jakinaren gain geratuz.

#### **3.- UDALBILTZAREN ALDEKO APORTAZIOA DELA ETA, 165/2015 SENTENTZIAREN BERRI EMATEA.**

Udalbatza jakinaren gainean dago Administrazioarekiko Auzien Donostiako 1. Epaitegiak 165/2015 epaia eman zuela, Estatuko Administrazio Orokorrak (Gobernuaren Ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoan) 2014ko martxoaren 3ko alkate-dekretuaren aurka jarritako errekurtsoren gainean. Dekretu honen bidez erabaki zen ekarpen ekonomikoa egitea Udalbiltza Partzuergoari. Honela dio epaiak:

“FALLO.- 1º Que debo DESESTIMAR y DESETIMO el recurso contencioso administrativo interpuesto por la ADMINISTRACION GENERAL DEL ESTADO contra la actuación administrativa recurrida por La Delegación del Gobierno en el País Vasco contra el decreto de alcaldía de fecha 3 de marzo de 2014 por el que se acuerda realizar una aportación económica a favor del Consorcio Udalbiltza que se declara ajustada a derecho, absolviendo a la parte recurrida de las pretensiones deducidas en su contra.- 2º No se efectúa imposición de costas”.

#### **4.- ANOETAKO EH BILDU TALDEAK AURKEZTURIKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

Bildu talde politikoko zinegotzia den Josune Eizmendi andreak irakurri eta aho batez ondorengo adierazpen instituzionala onesten da:

##### **“ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.-**

*Europako herrialdeetarako migrazio fluxua errealitate geldiezina da azken urteotan, ezberdintasun sozialen, krisi humanitario eta ekonomikoen eta Afrikako, Europako Ekialdeko eta Ekialde Hurbileko gerra gero eta ugariagoen ondorioz.*

*Drama humanoa da, haien herrietatik ihesi datozen milaka eta milaka personen heriotza eragiten duena. Hala ere, mundua lekuko isila da eta mendebaldeko agintarien ezintasuna eta geldotasuna gero eta nabariagoak dira.*

*Azken urteotan barne gerrek eta okupazio militarrek exodoak eragin dituzte Sirian, Iraken edo Afganistanen. Azkenaldian, horri beste errealitate bat gaineratu zaio, fanatikoa eta muturrekoa, Ekialde Hurbila ez ezik, Europako herrialdeak ere atentatu eta beldurra hedatzeko ekintzez kolpatu dituena.*

*Errealitate berri honen irtenbidea konplexua dela jakinda, onartezina da Europar Batasunaren eta haren gobernuetako agintari politikoen isiltasun mingarria. Gatazkek eta giza eskubideen urraketak eragindako migrazio fluxu honi ezin zaio erantzun alantzez eta jazarpen militarraz, ezta bizirik jarraitzeko ihesi datozenei merkataritza kuotak ezarrita ere.*

*Honengatik guztiarengatik, Anoetako EH Bildu udal taldeak honako ADIERAZPEN INSTITUZIONAL hau aurkezten du:*

*1.- Europar Batasunak erantzukizun garbia du errefuxiatuen exodoa eragin duen Ekialde Hurbilaren desorekatze egoeran. Horregatik, krisi humanitario honi modu aktiboan eta elkartasunez eta justizia humanitarioaz erantzuteko eskatu behar zaie bertako estatu kideetako agintari eta gobernuari. Gerra hauetatik ihes egiten duten edo tragedia hau aprobetxatzen duten mafien biktima diren pertsonen hartzeko beharrezko bitartekoak bidera ditzaten ere eskatu behar zaie.*

2.- Anoetako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari tragedia honen aurrean jarrera aktiboa eta solidarioa har dezaten eta haren ondorioak arintzeko eskura dituzten bitartekoak bidera ditzaten eskatzen die.

3.- Arestian aipatutako bi erakunde horiekin eta Euskal Herriko beste udal batzuekin lan egiteko konpromisoa hartzen du Anoetako Udalbatzak, errefuxiatu hauek hartzeko tokiko sare bat egituratzeko”.

## **5.- 2015-01-26KO UDALBATZAN BEHIN BEHINEKOZ ONARTURIKO ANOETAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETAK ONESTEKO PROPOSAMENA.**

2015eko urtarrilaren 26an behin behineko onarturiko Anoetako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketaren espedientea ikusi ondoren.

Raimundo Mendiburu Abad arkitekto aholkulariak txostena egin du 2015eko ekainaren 19an.

Hirigintza Batzorde Informatzaileak aldeko irizpena eman du 2015eko irailaren 23an.

Hau guztia kontutan izanda, Udalbatzak honako erabakia hartu du, eskubidez eta izatez Udalbatza osatzen duten 9 zinegotzietatik bertan dauden 7 aldeko botoa eman ondoren, hau da, legeak ezartzen duen gehiengo osoaren aldeko botoekin:

Lehena.- Hasierako onarpena ematea Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren zati baten aldaketari, 2015eko urtarrilaren 26an behin-behinean onartu zena; aldaketa atal hauetan eman da:

- 3. eremuaren banan banako fitxa (Modestoenea).
- Arautegi Orokorreko 119. art. “Nekazaritza-erabilera ez profesionalizatua. Lehendik dauden labore-unitateak”, eta 120. art. “Basogintzako erabilera”.
- 1etik 8rako planoak, bi hauek barne.

Bigarrena.- Espedientea 45 egunez jendaurrean egotea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Diario Vasco, Gara eta Berria aldizkarietan iragarkiak argitaratuz.

Iragarki hau azkeneko aldiz argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta 45 egunez, espedientea Udal honetako Hirigintza departamentuan ikusgai egongo da dagozkion iradokizunak aurkezteko.

## **6.- GALDE-ERREGUAK**

EAJ talde politikoko bozeramailea den Kepa De la Iglesia Sanchez jaunak galdetzean du ea nola dagoen Betean enpresak egin beharreko 2013 urteko Aurrekontu Orokorraren likidazioa.

Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du irailaren hasieran aipaturiko enpresa lanean hasi zela eta hilabete honen bukaerako amaitzea espero da.

Enpresaren asmoa, 2013 urtea amaitu bezain pronto 2014 urtearekin hastea da, datorren hilabetearen bukaera aldera amaitu ahal izateko, beti ere 2014 ekitaldiko kontabilizazioa ongi egingo badago.

Alkate jaunak adierazten du 2013 ekitaldia ixten den momentuan Ogasun Batzorde batea dei egingo zaiela.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta laurden direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.